



EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 11koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak — Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematu behar dituzten merezimenduenak — Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetan eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitua).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen 6.4 oinarrian ezarritakoaren arabera, — agindu horien bidez, aldi baterako enplegua luzaroan egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen kidego hauetan: Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, Musika eta Arte Eszenikoak, Arte Plastikoak eta Diseinua, Maisu-maistrak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako irakasle espezialistak —

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Argitara ematea izangaiek merezimenduengatik lortutako behin-behineko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematu beharrekoak (I. eranskineko I. eta II. atalak eta III.1 azpiatala), Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan.

Bigarrena.- Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda hemen argitaratuko da:

LHko sektore bereziatako irakasle espezialistentzat

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu)
- «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua - LHko sektore bereziatako irakasle espezialistak – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa-aldia: Partziala».

Gainerako kidegoetarako

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu)
- «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Salbuespenezko egonkortze-prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa-aldia: Partziala».



Hirugarrena.- Behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Online aurkeztuko dira, helbide honetan:

LHko sektore berezietako irakasle espezialistentzat

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkartzeko salbuespenezko prozesua – LHko sektore berezietako irakasle espezialistak – «Merezimenduak (LKU): erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Gainerako kidegoetarako

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkartzeko salbuespenezko prozesua» – «Merezimenduak (LKU): erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 11n

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.